MUTRIKUKO NAUTILUS MUSEOKO FOSILAK LANTZEKO PROGRAMA DIDAKTIKOA

Hartzaileak

Lehen Hezkuntza lehen zikloko ikasleak.

Helburuak

- Mutrikuko Nautilus Museoaren fosilen bilduma ezagutzea.
- Hitzezko eta hitzik gabeko komunikaziorako konpetentzian, ikasteko eta pentsatzeko konpetentzian, edo elkarbizitzarako konpetentzian sakontzea
- Zientziarako, teknologiarako, hizkuntza- eta literatura- komunikaziorako eta arterako konpetentziak lantzea.
- Inguruaren arazoei irtenbideak bilatzeko gaitasuna lantzea.
- Ondasun naturalen kontserbazioko arazoen inguruko sentsibilizazioan sakontzea.
- Irtenbideak abian jartzeko parte-hartzea sustatzea.

Oinarriak

Programa didaktikoak:

- Inguruaren ezagutza ahalbidetzen du, metodologia ludiko eta esperimentalaren bitartez.

- Ikasleen partaidetza lehenesten du, elkarren artean lan eginez eta ondorioak elkarlanean aztertuz.
- STEAM metodologia jarraitzen du eta hainbat diziplinetako ikasgaiak uztartzen ditu.
- Arazo egoera izeneko metodologian oinarritzen da, hau da, ikasleek problema-egoerak konpondu behar dituzte, eta eskura dauden baliabideak modu integratuan erabili behar dituzte.
- Egitaraua ikastetxeen beharretara egokitzen da, eta metodologia zein material didaktikoa eskaintzen du, Gainera, eskola bakoitzaren ICPa kontuan hartzen du.
- UNESCOren "Garapen Iraunkorreko Helburuak" bereganatzen ditu.

Metodologia

Programak **arazo-egoerak** lantzeko metodologian du funtsa:

- Egoera hori konplexua izango da, eta ikasleak lortutako hainbat jakintzagai mobilizatzea eskatuko du (kognitibo-, gizarte- edota afektibitate esparruan).
- Ikasleak egin beharreko produkzio jakin bat proposatuko du.

Garapena

Programa didaktikoa **hiru saioetan** garatu ohi da:

- Lehena **ikasgelan**, testuingurua eta ikasleen aurre-ideiak ezagutu eta lanak antolatzeko. Saio hau, Geoparkeko hezitzaileak emandako argibideak jarraituz, **eskolan egingo da irakasleak gidaturik**.
- Bigarrena **kanpoan**, esperimentazioaren bitartez ikasleen partaidetza bultzatu eta inguruaren behaketa zuzena bideratzeko. **Irteera Geoparkeko hezitzaileek gidatuta egingo da**.
- Hirugarrena **ikasgelan**, ondorioak atera eta elkarrekin konpartitzeko. Kasu honetan ere, Geoparkeko hezitzaileak emandako argibideak jarraituz, **eskolan egingo du irakasleak**.

1.saioa: Testuingurua eta aurre ariketak.

Lehenengo saioa ikasgelan gauzatuko da ordubete inguruko iraupena izango du. Saioa aurrera eramateko beharrezko materialak jarriko du ikastetxearen esku.

Halaber, lehen saio honetan bigarren saioaren inguruko zehaztapenak emango dira eta, ikastetxean diziplina ezberdinetako irakasleak inplikatzeko asmoz, ikasgai ezberdinetan lantzeko ariketak proposatuko dira. Esaterako, naturako elementu bizigabeak ingelesez nola izendatzen diren edo kostaldeko herrietan itsasoko animaliek nolako izena duten.

2. saioa. "Amonitearen bila" ginkana eta fosilen tailerra.

Bigarren saioa Nautilus museoan hasiko da eta, eguraldiaren arabera, Mutrikuko hainbat txokotan egingo da. Jardunaldiak 3 orduko iraupena du eta horrelako jolasen eta ekimen gauzatzen da:

- Hasteko **Bizirik al nago?** lokotx bilketaren gisako aurre-froga egingo da. Naturako elementu bizidunak eta bizigabeak bereizten ikasteko lasterketa jolasa da, eta bide batez, ingurumen hezkuntza eta kontzientziazioa bultzatzen du.

- Jarraian, “**Amonitearen bila**” 4 txokoetan antolatutako izeneko ginkana egingo da. Lau guneetan banatuta gai hauek landuko dira:

    - 1. Mutrikuko natura. Bizidunak eta bizigabeak. Elementu artifizialak.
    - 2. Fosilak. Zer dira eta nola sortzen dira? Fosil motak.
    - 3. Mutriku dinosauroen garaian: amoniteak eta bestelako fosilak.
    - 4. Dinosauroak. Motak, ezaugarriak eta bizimodua. Desagerpena.

- Bukatzeko, “**Fosilen tailerra**” egingo da. Tailer honetan ikasleek eskulanen bidez fosilen erreplikak egiteko aukera izango dute.

3. Saioa: Ondorioak bereganatzea eta “Gure Geoparkea” horma-irudia garatzea

Azken saioa ikasgelan gauzatzen da eta aurreko bi saioetan ikasitakoak bereganatzeko eta ondorioak ateratzeko jarduera da. Horretarako, ikasleak lan-taldetan banatuko dira eta ginkanan landu zituzten 4 gaietako frogak eta osatu dituzten fitxen oinarrituta, guztien artean, ikasitakoaren horma-irudia osatuko dute.